

Noa Sarriegi Rodriguez

F maila • 2 aipamena

Kaixo! Noa naiz eta bederatzi urte ditut. Murumendi eskolan laugarren maila ikasten dut. 2010 urtean jaio nintzen azaroaren hamaikan. Margotzea eta irakurtzea asko gustatzen zait. Bidaiatzea eta toki berriak ezagutzea gustokoa dut ere...baino gehien gustatzen zaidana pozik egotea ta jolastea da.



LURRA DENONA DA

Bazen behin Afrikako herri txiki batean familia bat. Familia hartan hiru ume bizi ziren, Nakla, Panle eta Lani izenekoak. Beraien aita eta ama Kinha eta Tin ziren.

Egun batean Nakla suge baten atzetik joan zen eta bere bi anai-arrebak bere atzetik joan ziren. Aurrera eta aurrera egin zuten baina konturatu zirenerako galduta zeudela ikusi zuten. Naklak aurretik jarraitzen zuen eta ez zekien atzean bere anai-arrebak zeudela. Bat-batean, beraien atzean hondea makina eraldioi bat ikusi zuten. Barruan pertsona bat ikusi zuten eta harri laguntza eskatzea pentsatu zuten baina hondea makina martxan jarri zuen eta Nakla txikia ia ia azpian harrapatu behar zuenean zuhaitzen artean txinpantze bat atera zen. Umea besoetan hartu eta zuhaitzen atzean utzi zuen dena pasatu arte.

Naklaren bi anai arrebek aurrera jarraitu zuten berriro baina halako batean etxola bat ikusi zuten:

- Etxolan sartuko gara? galdetu zion Lahik bere anaiari.

Anaiak baietz esan zion eta eskutik helduta sartu ziren. Barruan dena miatzen hasi ziren eta bat batean pano batzuk ikusi zituzten. Plano haiek kanpin bat egiteko zirela konturatu ziren. Planoekin batera zeuden paperetan kanpina egiteko oihana botatzeko asmoa zutela irakurri zuten. Planoak hartu eta Naklaren bila joatea erabaki zuten. Nakla txinpanze batzuen artean zegoela ikusi zuten. Zoriontsu zebilen beraiekin jolasten.

Ikusi zituenean harrituta gelditu zen baina hauek gertatutako guztia kontatu zioten eta herrira bueltatzea erabaki zuten. Gertatzen ari zena kontatu beharra zuten. Herrira iritsi zirenean bere aita eta amari kontatu zieten planotan ikusitakoa eta orduan herriko agintariengana joatea erabaki zuten. Hauei zekiten guztia kontatu zieten eta orduan herriko agintariek eskertu eta lasai egoteko esan zien.

Handik egun batzuetara Pan izeneko gizon bat azaldu zen udaletxetik kanpin bat eraiki nahi zuela esanez eta baimenen bila. Herriko agintariek beste proposamen bat egin zioten

orduan, kanpin bat eraili beharrean txinpantzeentzako parke natural bat eraikitzea proposatu zioten. Paneri ez zitzaion ideia txarra irudituz eta baiezkotzat eman zuten. Gainera herritar askori lana emango ziela agindu zuten.

Nakla, Panle eta Lanik gustura hartu zuten notizia. Ordutik aurrera denak lasai eta pozik bizi izan ziren betirako eta inguru hartako txinpantzeak ere libre eta babestuta bizi izan ziren.